



Andoaingo Udala

Alkatetzaren ebazpena

Kontuan hartuz Salkin elkartearen izaera dinamizatzailea merkataritza sustapenari dagokionean Andoaingo udalerrian.

Kontuan hartuz txikizkako merkataritza eta ostalaritzaren garrantzia bai gizarte arloan zein ekonomikoan, Andoaingo garapenari dagokionean.

Kontuan hartuz Andoaingo udala eta aipaturiko txikizkako merkataritza eta ostalaritza sektorearen arteko harremanak normalizatzeko instrumentu edo lanabes batekin kontatzeko interesa.

Kontuan izanik 2026ko maiatzaren 27ko 1500/2026 zenbakiko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onartutako Andoaingo Udaleko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta 2014.05.27an GAOOn argitaratutako Andoaingo Udalean Dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza.

Kontuan izanik Dirulaguntzak ematea arautzeko Udal Ordenantza 2014.05.27 datan GAOOn iragarritakoa

Ikusirik Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria lansaileko Teknikariak 2026ko apirilaren 28an eta 2026ko ekainaren 25ean egindako txostenak.

Ikusirik Udal Kontuhartzaileak 2026ko maiatzaren 31ean egindako baldintzatutako aldeko txostena.

Horrenbestez, agiri honen bidez, honakoa

ERABAKI DUT

Lehenengoa: Eragozpen oharra kentzea, 2026.06.25eko txosten teknikoak adierazitakoa kontuan hartuta

Bigarrena: Onartzea, Andoaingo Udala eta SALKINen artean proposatutako lankidetzak hitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen:

Xedea: Tokiko merkataritza eta ostalaritza sustatzea.

Dirulaguntza: 128.700 €.

Partida: 1.0800.471.431.00.01 (452 kontr.)

Indarraldia: Urtebete.

2026/01/01etik - 2026/12/31ra.

Hirugarrena: Ordainketari dagokionez, horrela ordainduko da:

- 1.- Hasierako % 40, 51.480 €, behin hitzarmen hau sinatuta.
- 2.- % 60, 77.220 €, gastuak hasierako % 40 behar bezala justifikatu ondoren ordainduko da.

Hitzarmen honetan ezarritako zenbatekoa jasotzeko, Salkin elkarteak Andoaingo Udalarekiko nahiz gainerako herri administrazioekiko zerga-zorrik ez duela zurtzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

Salkin elkarteak, programatutako azkeneko ekitalditik kontatzen hasi eta gehienez ere 2027ko urtarrilaren 31 baino lehen gastuen balantze orokor bat aurkeztuko du. Bertan, faktura zurigarriak aurkeztuko dira (jatorrizko fakturak edo kopia konpultsatuak) eta egitaraua gauzatu dela egiaztatzea ahalbidetzen duten



Andoaingo Udala

agiri grafikoak biltzen dituen dossier bat prestatuko da (kartelak, liburuxkak, prentsa-oharrak, eta abar).

Laugarrena: Alkateari hitzarmen hau sinatzeko ahalmena ematea.

Bostgarrena: Hartutako erabakia SALKINI jakinaraztea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez eta, halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, alkateak sinatuta.

Seigarrena: Akordio honen berri ematea Kontuhartzailletza udal lantsailari.

Hala agindu eta sinatu dut, Andoaingo sinadura datan.

Idazkaria

Alkatea



EKS | CSV: ESKUfd9c2172-610a-48e5-a71f-83b56fd1e266

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>